EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA
REAL SOCIEDAD BASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAIS

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

XABIER MARIA DE MUNIBE XVIII. MENDEKO IKASKETEN NAZIOARTEKO INSTITUTUA
INSTITUTO INTERNACIONAL XABIER MARIA DE MUNIBE DE ESTUDIOS DEL SIGLO XVIII

# LANKIDETZA-HITZARMENA EUSKO LEGEBILTZARRAREN, ALDE BATETIK, ETA EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA-XABIER MARIA DE MUNIBE NAZIOARTEKO INSTITUTUAREN ARTEAN, BESTETIK.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko ekainaren 22an

## BILDUTA

Alde batetik,

- Eusko Legebiltzarreko lehendakari Arantza Quiroga Cia andre txit gorena.

Bestetik,

- Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko (aurrerantzean EAE) Zuzendaria eta Xabier Maria de Munibe XVIII. mendeko Ikasketen Nazioarteko Institutuko (aurrerantzean Institutu) Zuzendaria Jose Maria Urkia Etxabe jauna.

## AGERTZEN DIRA

Guztiak, euren karguari dagozkion berezko zereginetan jardunez, elkarri errekonozituz, agertzen diren moduan, hitzarmen hau gauzatzeko gaitasun osoa, eta ondorioz libre eta nahita.

# CONVENIO DE COLABORACION ENTRE EL PARLAMENTO VASCO, DE UNA PARTE, Y LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAÍS – INSTITUTO INTERNACIONAL XABIER MARIA DE MUNIBE DE ESTUDIOS DEL SIGLO XVIII, DE LA OTRA

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de junio de 2010

## REUNIDOS

De una parte,

- La Excma. Sra. Presidenta del Parlamento Vasco Dña. Arantza Quiroga Cia.

De la otra,

- El Director de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (en adelante RSBAP) y Director del Instituto Internacional Xabier María de Munibe de Estudios del Siglo XVIII (en adelante Instituto), Sr. D. José María Urkia Etxabe.

## INTERVIENEN

Todos ellos en el ejercicio de las funciones propias de su cargo reconociéndose, tal y como intervienen, mutua y plena capacidad para el ejercicio del presente convenio y al efecto libre y voluntariamente.

## AZALTZEN DUTE

Xabier Maria de Munibe XVIII. mendeko Ikasketen Nazioarteko Institutua berriki sortutako erakundea da, eta Azkoitiko Insausti jauregian du egoitza. Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen babesean sortua da, ilustrazioa eta kulturari buruzko ikerkuntza eta gogoeta eta ilustrazioaren gaur egungo ondarea sustatzeko helburuarekin.

Bere jarduera nagusiak honako hauek dira: mintegiak, workshopak, mahai-inguruak eta batzar zientifikoak burutzea, helburu akademiko eta ikertzailearekin. Institutuaren jomuga, ikastaro eta mintegi berezituen inguruko prestakuntza-jarduerak burutzea da.

Institutuak zabalkunde- eta dibulgazio-jarduerak sustatzen ditu, bai konferentzia-zikloak, eztabaidak eta herritarrei zuzendutako izaera honetako bestelako jardueren inguruan, bai liburuen eta bestelako argitalpenen edizio-lan baten bitartez.

Institutuaren izaera eta izpirituaren ezaugarri nagusiak:

- Nazioarteko izaera. Institutuko batzorde zientifikoan hamabost akademiko prestigiodun daude, Espainiako, Frantziako, Italiako, Erresuma Batuko, Alemaniako, Argentinako eta Mexikoko unibertsitatetakoak. Bere mintegi-jardueretan eta bestelakoetan, eskuarki hartzen dute parte munduko hainbat herrialdetako irakasleek eta ikerlariek.

## EXPONEN

El Instituto Internacional Xabier María de Munibe de Estudios del Siglo XVIII, es un organismo de reciente creación, con sede en el palacio de Insausti (Azkoitia). Está concebido al amparo de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, con el fin de promover la investigación y la reflexión sobre la cultura y la Ilustración y su legado en la actualidad.

Sus principales actividades son la realización de seminarios, workshops, coloquios y reuniones científicas con finalidad académica e investigadora. El Instituto aspira a la realización de labores de formación en torno a cursos y seminarios específicos.

El Instituto promueve actividades de difusión y de divulgación, en torno tanto a ciclos de conferencias, debates y otras actividades de esta índole, dirigidos al conjunto de la ciudadanía, como a través de un trabajo específico de edición de libros y de otras publicaciones.

Rasgos principales de la naturaleza y espíritu del Instituto:

- Carácter internacional. En el comité científico del Instituto figuran quince prestigiosos académicos, provenientes de universidades españolas, francesas, italianas, británicas, alemanas, argentinas y mejicanas. En sus actividades seminariales y de otra índole, participan habitualmente profesores e investigadores de un espectro geográfico internacional amplio.

- Institutuak ilustrazioaren baliorik berezkoenetan eta berezienetan formatzen lagundu nahi du, bai ikerlari gazteei dagokienez bai herritarrei dagokienez ere.

- El Instituto pretende contribuir a la formación en los valores más singulares y característicos de la ilustración, tanto de jóvenes investigadores como del conjunto de la ciudadanía.

- Diziplina arteko perspektiba batek bultzatzen du bere jarduna; hortaz, bere jardueretan jakintza-alor nagusi guztiek dute bere lekua. Ilustrazioaren kulturaren garapena sustatu nahi du, bai natur- eta medikuntza-zientziak bai gizarte- eta giza-zientzia guztiak ere, hala nola diren zuzenbidea, politika, ekonomia edo historia.

- Está animado por una perspectiva interdisciplinar, de tal manera que en sus actividades tienen cabida todas las principales disciplinas. Pretende el desarrollo de la cultura de la Ilustración, desde las ciencias naturales y médicas hasta todo el conjunto de las ciencias sociales y las humanas, como el derecho, la política, la economía o la historia.

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

### LEHENA.- Hitzarmenaren xedea

Honako hitzarmen honen xedea lankidetzarako baldintzak ezartzea da, alde batetik Eusko Legebiltzarraren, eta bestetik Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen (Institutua) artean, Ilustrazioaren eta XVII. mendeko kulturaren hainbat alderdiri buruzko ikerkuntza eta zabalkunde zientifikoaren arloan.

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak (Institutua), zehazki, urtero etengabeko izaera duen mintegi bat antolatzeko konpromisoa hartzen du, "**EUSKAL ILUSTRAZIOA ETA BERE ONDAREA**" lelopean.

### PRIMERA.- Objeto del convenio

El presente convenio tiene por objeto establecer las condiciones de colaboración entre el Parlamento Vasco, de una parte, y la RSBAP (Instituto), de otra, en materia de investigación y divulgación científica sobre diferentes aspectos de la cultura de la Ilustración y el siglo XVIII.

En concreto la RSBAP (Instituto) se compromete a organizar anualmente un seminario de carácter permanente bajo la denominación de "**LA ILUSTRACION VASCA Y SU LEGADO**".

Mintegi honek ondorengo asmoa du: Euskal Ilustrazioaren eta bere jatorri bereiziaren inguruan, argien mugimendu kosmopolitarekin duen erlazio banaezina eta gaur egunean duen ondareari buruz, mundu akademikotik egin izan diren ikerkuntza eta gogoeta-jarduera guztiak bateratzea.

2009ko lehen mintegian, gai hauei historia sozialaren ikuspegitik heldu zitzaien. Euskal Herriko Unibertsitateko historia modernoko irakasle José María Imízcoz izan zen zuzendaria.

2010eko bigarren edizioaren izena "EUSKALDUNAK ESPAINIAR MONARKIAREN BUROKRAZIAN XVIII. MENDEAN ZEHAR" da, eta Deustuko Unibertsitateko zuzenbidearen historiako irakaslea den Jon Arrieta da zuzendaria.

Bere helburua honako hau da: profil biografiko eta profesional zehatzen aurkezpenaren bidez, Euskal Erkidegoan jatorria zuten pertsonek Borboitarren administrazioko egitura administratibo eta politikoan jokatutako papera aztertzea.

Mintegia Insausti Jauregian burutuko da urriaren 22an eta 23an.

Legebiltzarrak, bere aldetik, ekimen hau babestu egingo du, honako hitzarmen honetatik eratortzen diren kondizioen arabera finantzatuz, eta bereziki laugarren klausularen arabera.

Este seminario aspira a nuclear las diferentes actividades de investigación y reflexión que desde el mundo académico se vienen realizando, en torno a la historia de la ilustración vasca, a su naturaleza específica, su relación inseparable con el movimiento cosmopolita de las luces y su legado en la actualidad.

En el primer seminario del año 2009, estas cuestiones fueron enfocadas desde la perspectiva de la historia social. La dirección estuvo a cargo de José María Imízcoz, profesor de historia moderna de la Universidad del País Vasco.

La segunda edición del año 2010, tiene por título “LOS VASCOS EN LA BUROCRACIA DE LA MONARQUIA ESPAÑOLA DURANTE EL SIGLO XVIII” bajo la dirección de Jon Arrieta, profesor de historia del derecho de la Universidad del País Vasco.

Su objetivo es indagar, a través de la presentación de perfiles biográficos y profesionales concretos, sobre el papel desempeñado en la estructura administrativa y política de la administración borbónica, por personas provenientes de la Comunidad Vasca.

El Seminario tendrá lugar en el palacio de Insausti en los días 22 y 23 de Octubre.

El Parlamento, por su parte, apoyará esta iniciativa, financiándola en los términos que derivan del presente convenio y en especial en su cláusula cuarta.

**BIGARRENA.- Jarduteko plana**

Urteko jarduteko plana hitzarmenaren jarraipen-batzordeari aurkeztuko zaio urteroko onarpena egin dezan.

Era berean, urteko jarduera amaitu ostean, jarraipen-batzordeari garatutako mintegiaren memoria aurkeztuko zaio.

**HIRUGARRENA.- Jarraipeneko batzorde Mistoa**

Honako Hitzarmen hau sinatuta, hilabeteko epean jarraipeneko batzorde bat osatuko da, hitzarmenean ezarritakoaren exekuzio eta koordinazio egokia ziurtatze aldera.

Batzordean hitzarmena gauzatzen duten alderdien ordezkari banak osatuko du.

Aipaturiko batzordeak emandako laguntzen eta bilatzen diren helburuen betetzearen kontrola egiteko ardura izango du, legalki aipaturiko zeregina duten organoek egindako kontrolak baztertu gabe.

**LAUGARRENA.- Hitzarmen honen finantzazioa**

Eusko Legebiltzarrak beharrezkoa den diru-kopurua emango du proiektua gauzatzeko, horrek ekartzen dituen gastuei aurre egiteko.

2010. urterako emango den 10.000 euroko diru-laguntzaren ordainketa hitzarmen hau sinatzean egingo da.

**SEGUNDA.- Plan de actuación**

El plan de actuación anual será presentado a la comisión de seguimiento del convenio para su aprobación anual.

Del mismo modo, al término de la actividad anual se presentará a la comisión de seguimiento una memoria del seminario desarrollado.

**TERCERA.- Comisión mixta de seguimiento**

Firmado el presente convenio, se constituirá, en el plazo de un mes, una comisión de seguimiento, a fin de asegurar la debida ejecución y coordinación de lo establecido en el mismo.

Esta comisión estará formada por un representante de cada una de las partes que conciertan el convenio.

Dicha comisión será la encargada de realizar el control de las ayudas concedidas y de la consecución de los fines perseguidos, sin perjuicio de los controles por los órganos que legalmente tienen atribuida dicha función.

**CUARTA.- Financiación del presente convenio**

El Parlamento Vasco aportará para la consecución del proyecto la cantidad necesaria para sufragar los gastos que conlleva su realización.

El pago de la subvención de 10.000 euros para el año 2010 se efectuará a la firma de este convenio.

**BOSTGARRENA. - Hitzarmen hau bertan behera uzteko arrazoiak**

Hitzarmen hau bertan behera utzi ahal izango da ondorengo baldintzetako bat gertatzen bada:

- Alderdi sinatzaileek euren artean hala adostuz gero.

- Hartutako konpromisoen ez-betetze larria, lankidetza-hitzarmena sinatu duten edozein alderdiren aldetik.

- Beste edozein zuzenbide-aurrekari.

**SEIGARRENA.- Hitzarmen honen indarraldia**

Hitzarmen honen iraupena 2010. urtera mugatua dago.

**ZAZPIGARRENA. - Azkena**

Hitzartutakoa ondo jasota gera dadin eta alderdiek beteko dutela argi adierazita, honako dokumentu honen bi ale orrialde guztietan sinatzen dira.

**QUINTA.- Causas de resolución del presente Convenio**

El presente convenio podrá resolverse cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias:

- Mutuo acuerdo entre las partes suscribientes.

- Incumplimiento grave de los compromisos contraídos, por cualquiera de las partes suscribientes del presente convenio de colaboración.

- Cualquier otra procedente en derecho.

**SEXTA.- Vigencia del presente convenio**

El presente convenio tiene una duración circunscrita al año 2010.

**SEPTIMA. – Final**

Para la debida constancia de lo convenido y con la expresa declaración de su cumplimiento por las partes, se firma y rubrica en todas sus páginas el presente documento por duplicado ejemplar

ARANTZA QUIROGA CIA

Eusko Legebiltzarreko Lehendakaria

Presidenta del Parlamento Vasco

JOSÉ MARÍA URKIA ETXABE

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Zuzendaria
Director de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País